



Mikel Calvo - Ander Manchobas

Aixerrota BHI , 15-16

## Aurkibidea

Juan kruz Igerabide .....	3
Sarrera .....	3

### *Motoa*

<input type="checkbox"/> Kokapena .....	4
<input type="checkbox"/> Gaia .....	4
<input type="checkbox"/> Argumentua .....	4
<input type="checkbox"/> Istorioa .....	5
<input type="checkbox"/> Pertsonaiak .....	5
<input type="checkbox"/> Egituraketa .....	6
<input type="checkbox"/> Baliabideak .....	7
<input type="checkbox"/> Iritzia .....	8
Bibliografia - Webgrafia .....	9

## Juan Kruz Igerabide

Juan Kruz Igerabide Sarasola Adunan, (Gipuzkoa) 1956an. Euskal idazle saritua da, literaturaren espazio ugari jorratu dituena.



Maisu ikasketak egin eta irakasle aritu zen zenbait urtetan, gero Euskal Filologian doktoregoa lortu zuen. Gaur egun Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle da, Euskal Filologia sailean.

Poesia ikertuz eta idatziz sartu zen literaturaren munduan. Haur literaturako ikerketak ere egin zituen eta bere lehen obra *Beginiaren poemak* izan zen. Geroztik lan ugari argitaratu ditu, poesia zein prosaz. Hala nola, *Izar bat agertu da*, *Elurra sutan* edo *Mailu isila*.

## Sarrera

*Motoa* eleberia Juan Kruz Igerabidek idatzi zuen, eta lehen aldiz 2012an argitaratu zuen Alberdania S.L argitaletxeak, eta Ostiral Saila bildumaren parte da.

Igor izeneko nerabe baten arazoa kontatzen digu, eta bere bizipen familiarra, amodiazkoak eta lagunartekoak.

Istorian zehar mota desberdinetako pertsonaiak agertzen dira; badaude pertsonaia alaiak eta eskuzabalak, eta badaude lotsatiak eta sentimenduak kanporatzeko arazoak dituzten pertsonaiak ere.

## Kokapena

Istoriaa XXI. mendean koka dezakegu, erabiltzen diren gailu eta objektuengatik (mugikorra, motoa...). Horrez gain, idazlearen jaioterrian oinarrituta dagoen leku batean gertatzen da, Leitzaran ibaitik hurbil. Idazleak Herriko hainbat leku bereizten ditu, ``Fu Mantxu`` adibidez, non drogak eguneroko gauzak diren.

## Gaia

Obra honen gaiak adiskidetasuna eta maitasuna dira, eta horiei gazteen gorabeherak eta adiskidetasuna lotzen dizkie idazleak. Gainera, drogek, gaur eguneko krisiak eta familiak garrantzi handia dute eleberri honetan.

## Argumentua

Igorrek, bere lagun Tripazorroekin neska bat salbatzen du, eta neska horretaz, Irenez, maitemintzen da. Ondoren irenek Igor bera eta bere lagunekin joatera gonbidatzen du. Lagun horiek Igorrentzat influentzia txarra bihurtzen dira, Igor Lferra bihurtzen da, alkohola edaten, eta drogak hartzen hasten da. Baina egun batean Irene eta bere lagunek, erabiltzen ari dutela konturatzen da, eta bere arreba, bere aspaldiko lagun Tripazorro, eta haren aitaren laguntzarekin, Irene eta bere koadrillaren negozio zikinak zapuzten dituzte. Honela dena egoera normalera bueltatzen da eta Igorrek izugarrizko lege morala barneratzen du.

## Istoria

Igor, 15 urteko gaztea, bere arreba Marinarekin eta aitarekin bizi da. Oso maite zuen aitona duela ez asko hil da, eta amak familia utzi eta bere maitalearekin joana da. Arazo ekonomikoa dute, amaren jokoarekiko zaletasunak eragindako zorraren ondorioz. Igorrek, aitonak utzitako diruaren zati txiki batekin, txatartegian moto zahar bat erosten du, eta bere lagun eta mekanikari Tripazorroren laguntzaz, motoari motorra trukatzeari eta koloreztatzeari lortzen dute, eta berria izango balitz bezala utzi.

Egun batean, bi lagunak motoan bueltaka dabiltzala, beraiengana arineketan datorren neska eder bat ikusten dute, Irene. Neskatxa, estualdi batean dago eta motoaz baliatuz berehala salbatzen dute egoera hartatik. Irene, Igorren eskola berberera doa, baina urte batzuk nagusiagoa da. Inoiz ez du Igorrekin hitz egin, baina gertatutakoaren ondoren eskerrak emateko, neskatilak Igor gonbidatzen du berarekin eta bere lagunekin geratzera. Igorrek lagunak gustuko izan ez arren, Irenerenganako erakarpena dela-eta taldera biltzen da. Denbora aurrera doan heinean, bien arteko erlazioa sendotu egiten da, Irenek etengabe bereganako duen maitasuna adierazten baitio. Hala ere, gau batean droga eta lapurreta negozioan sartuta daudela eta horretarako erabili egin nahi dutela ohartzen da Igor. Orduan, bere arreba Marinari eta Jexuxi (Tripazorroren aita) kontatzen die gertatzen ari den guztia. Haien laguntzarekin eta Tripazorroren laguntzarekin aurkitzen dute drogaren ezkutalekua eta berehala anonimoki ertzainei ematen diete informazioa.

Horren ondoren atxilotuta bukatzen dute, Igorrek aitonak utzitako dirutik geratzen zaiona ematen dio aitari, bederatzi mila euro baino gehiago, etxeko-krisi egoera konpontzen laguntzeko.

## Pertsonaiak

### Igor

Igor istoriako protagonista da, 15 urteko mutil oso lotsatia eta isila. Lagun gutxiko gaztea da, bere bizilagun Tripazorro da ikus dezakegun lagun bakarra. Motorrarekin oso trebea da.

### Irene

Igorren eskolara doan neska polita eta liraina da, eta bera baino nagusiagoa. Igor berarekin maitemintzen da, baina Irene berataz aprobetxatzen da, eta Txinoren neskalaguna da.

### Txino

Batxilergoa errepikatzen dago eta hogeitatu bat urte ditu gutxienez. Karretas eta Arratoi ditu lagun. Harroputza da eta dena bere kontrolpean eduki nahi du. Eta Ireneren mutilaguna da.

### Tripazorro

Igor txikitandik babestuta izan duen mutil mardul gizentxo da. Mekanikako ziklo bat egiten ari zen, eta aspalditik aritzen da moto zaharrak desarmatzen eta muntatzen. Igor baino zaharragoa izan arren bere lagun bakarra da.

## Egituraketa

Egiturari dagokionez, istorioa modu linealean kontatuta dago, hau da, narratzaileak istorioan gertatzen diren gertaerak ordena kronologikoan kontatzen ditu.

Istoria hiru atal nagusitan banatuta dago, lehenengo zatian pertsonaien aurkezpena eta hasierako egoera aurkezten du; bigarrenean, gertakizun nagusiak; eta, hirugarrenean, arazo horiei aurkitutako soluzioak eta amaierako egoera aurkezten ditu narratzaileak. Narratzailea orojakilea da, zeren eta pertsonaien sentimendu eta pentsamenduak ezagutzen ditu.

## Baliabideak

Narratzailearen aldetik, orojakilea dela esan dezakegu, liburuan zehar pertsonaien sentimenduak eta pentsaerak ezagutzen dituelako, horrez gain hirugarren pertsonan dago idatzia. Hiztegiaren aldetik erraza da, gehienetan testuinguruagatik ulertu genezake hitza. Estiloaren aldetik Zuzena eta sinplea dela hauteman dezakegu, askotan erabiltzen ditu elkarrizketak istorioa kontatzeko, era berean, deskribapenak eta narrazioak istorioan barneratzen du irakurlea bera, eta pertsonaien barne eta kanpo izaera definitzeko balio dute.

Hona hemen nobelaren pasarte bat:

*Txinok bultza egin zion, parkean bakarrik pasea zedin keinua eginez, motoekin zuhaitz batzuen atzean ezkututzen ziren bitartean.*

*—Ea baduten potrorik orain eraso egiteko.*

*Irene pixka batean ibili eta itzuli egin zen.*

*—A zer txorakeria! Hortxe zain egongo dira ba!*

*Bostak parkean barrena ibili ziren. Bikote bat ikusi zuten aulki batean, elkarri besarkatuta. Txinok esku argi bat atera eta enfokatu egin zituen. Karretas eta Arratoia `` uuu,uuu ´´ka hasi ziren, haiek izutzeko. Bikotea jaiki, eta lasterrera urrundu zen. Irenek oihu egin zien lagunei:*

*—Utzi bakean, ez? Zergatik sartzen zarete horiekin?*

*Karretas eta Arratoia barrez hasi ziren. (47)*

Konparazio argi bat aurkitu daiteke nobelan, aitonak bizitzako jokabidea animalen jokabideekin konparatzen duenean. Aitonak dioenez:

*Bizitza sator bat bezala bizi daiteke, edo katagorri bat bezala -azaldu zien-. Satorra lur azpian bizi da, itsumustuan lan egiten du, ikuspegirik gabe. Katagorriak ere egiten du lana, baina gehiago arriskatzen du, jauzi egiten du eta, batez ere, ikuspegia dauka. Zuek katagorriak zarete, badakit ongi. Ez inor utzi sator moduan biziarazten; are arratoi moduan. (52)*



## Iritzia

Gure iritziz, *Motoa* obra irakurterraza eta entretenigarria den obra da. Orri kopuru aldetik gutxikoa da, 104 orrialde osorik, eta 90 orrialde inguru dira istorioaren kontaketa.

Horrez gain, tratatzen duen tematika gazteon tematika dela uste dugu, hain zuzen ere, amodioa eta lagunen arteko harremanak. Hala ere, istorioa apurtxo bat irrealia iruditzen zaigu. Esan beharra dago obra pertsona nagusiei ere zuzenduta egon daitekeela, beraien seme-alaben egoera nolabait ulertzeko balio duelako.

Interesgarria da nola autoreak intriga sentzazio bat sortu duen istorioan, hain zuzen ere, Igorren motoaren ``klikak``ekin. Istorioan Igorren motorraren balaztak egiten duen ``klikak``, istripu batean amaituko duen sentzazio intrigantea sortzen du, eta honek, egia esanda, irakurtzeko gogoak pizten ditu.

Gainera, Istorioak Igorren egoera berdinean dauden pertsonengan kontzientzia sorrarazten du. Eta ez hori bakarrik, nobelan ageri den Igorren aitona ere mezu bat bidaltzen dio irakurleari, inoiz ez diezula besteei zu zapaltzen utzi behar.

## Bibliografia - Webgrafia

*Motoa*, Juan Kruz Igerabide. Alberdania.

- <http://www.atalak.eus/ikasgela-materialak/il-hiztegitxoak/eleberriak-bilduma/motoa/motoa-op-mf.pdf>
- <http://www.atalak.eus/ikasgela-materialak/il-hiztegitxoak/eleberriak-bilduma/motoa/motoa-al.pdf>
- [https://eu.wikipedia.org/wiki/Juan\\_Kruz\\_Igerabide](https://eu.wikipedia.org/wiki/Juan_Kruz_Igerabide)
- <http://www.atalak.eus/ikasgela-materialak/nola-egiten-da/eleberri-lana/il-gida-atalak.pdf>